

DOSSIER 2007

erraldoien

ondakan

konpartsa



AURKIBIDEA

• Aurkezpena	3
• Erraldoiak Bizkaian XX. mendean	4
• De la música de los Gigantes	10
• Erreportai berezia	13
• 10. urteurrena	17
• 2006ko Balantzea	21
• Konpartsa Berriak Bizkaian	26

Argazkiak :

Manu Aldea	Txebi Arriaga
Laukizko Atxa baserria	Angel Checa
Monica Gallastegi	Jon Gaminde
Blanca Ibarrondo	Itziar Lavandero
Javier Lavandero	Txema Luzuriaga
Ander Oleaga	Victor Ortega
Ruben Pena	Jose Antonio Puga
Miguel Rubio	Asier Urrutia
Juan Luis (Almike)	Dani (San Inazio)
Libe (Amurrio)	Susana Martínez
Joseba (Bar Niza)	Carlos Recio

Ondalan Erraldoien Konpartsa

Maketazioa :

Ritxard Guimerá

Argitaratzailea :

Ondalan Erraldoien Konpartsa

Inprimatzailea :

Imprenta GUIMERÁ, s.a. - BASAURI - 50950

erraldoien

ondalan
konpartsa

Helbidea:

Blas de Otero, 42 atzekaldeko loia
48014 BILBAO

Telefonoa: 656 71 30 28

e-mail: ondalan@hotmail.com
www.ondalan.com

10. urtemugaren ospakizunak behin pasatuta, eguneroko lanari berekin diogu eta, beraz, urte honetan egindakoari errepasoa egin behar.

Hamar urte betetzea bidean geldiunetxoa egiteko aitzaki nahikoa dela uste dugu, noraino heldu garen jakin eta aurrera jarraitzeko, ildo berriak irekiz beharrezkoa baldin bada. Baina gure aktibitateak oinarri tradizionala du, eta horri zintzo jarraitu behar diogu.

Aurreko dossierretan Bilboko Erraldoien historiaren azken kapitulua behin amaituta, Bizkaian Erraldoiak zer izan diren XX. mende hasieratik azaltzen duen txostena dator oraingoan, gure lurraldean aktibitate honen sustraien ikuspegi orokorra izateko.


Amaitzeko, aurten inoiz baino gehiago, burututako ekitaldiak eta proiektu honi euren sostengua eskaini dien pertsona eta entitateei gure eskerrik beroena luzatu nahi diegu.

Pasada la vorágine de los actos del 10º aniversario, volvemos a la actividad cotidiana y a la necesidad de hacer balance de todo lo realizado en este año.

Entendemos que diez años es un plazo razonable para hacer un pequeño alto en el camino, evaluar hasta dónde hemos llegado y seguir adelante abriendo, si es necesario, nuevas líneas, pero teniendo claro que existe una base tradicional en nuestra actividad a la que debemos ser fieles.

Finalizada en dossiers anteriores la historia de los Gigantes de Bilbao, incluimos este año una reseña de lo que han sido los Gigantes en Bizkaia desde principios del siglo XX, para tener una visión general del arraigo de esta actividad en nuestro territorio.

Este año, quizás más que nunca, queremos agradecer a todas las personas y entidades su colaboración y respaldo que hemos tenido para la celebración de los actos programados y para la continuidad de este proyecto.



Egilea: Jon Gaminde Terraza

Bilboko Erraldoiei buruzko artikuluen ondoren, zeinetan euren historiari errepasoa egin den, Bizkaiko beste udalerrietako Erraldoiei buruzko sailarekin hasiko gara oraingoan.

Bizkaiko herrietako konpartsen daturik garrantzitsuenak laburbiltzen saiatuko gara. Horretarako, 1998an burutu zen "Erraldoiak Bizkaian" erakusketan erabiltzen ziren panelen testuak erabili ditugu.

Tras los últimos artículos referentes a los Gigantes de Bilbao, en los cuales se hace un repaso a su historia, iniciamos una nueva serie sobre los Gigantes de otras localidades de Bizkaia.

Vamos a intentar resumir los datos más importantes de las comparsas de los pueblos de Bizkaia. Para lo cual hemos utilizado los textos de los paneles correspondientes a la exposición "Erraldoiak Bizkaian" que se realizó en 1998.

AMOREBIETA

Udal Erraldoiak Kukubiltxok eginak; Larreako jaun-andreak irudikatzen ditue eta 1997ko uztailaren 20an estrenatu ziran.

Lehenago be izan zan beste Erraldoi bikote bat, horren aipamena dago-eta berrogeita hamarreko hamarkadan.

Herriko kompartsa 2005ean eratu zan.

Gigantes municipales, fabricados por Kukubiltxo, representando a los señores de Larrea. Fueron estrenados el 20 de julio de 1997.

Anteriormente dispuso, al menos, de otra pareja de Gigantes, habiendo constancia de ello en los años cincuenta.

La comparsa propia se constituyó en 2005.



AREATZA

Erraldoi honeek 1997an egin zituan herritarrek eurek. Herrian antxina egoan bainu-etxeke erabiltzaileak irudikatzen ditue, eta lehenagokoen egitura erabili da oinarri lez. Urte bereko San Bartolome jaietan inauguratu ziran.

2002an Txistularia eta Añudea osatzen zuten bigarren bikotea sortu zuten.

Gigantes fabricados en 1997 por los propios vecinos de la villa, representando a los usuarios del antiguo balneario de la localidad, utilizando como base la estructura de los anteriores. Inaugurados en las fiestas de San Bartolomé de ese mismo año.

En 2002 fue incorporada una segunda pareja representando a un Txistulari y una Añude.



BARAKALDO (Laguntasuna)



San Bizente auzoko Laguntasuna taldeko Erraldoiak. 1998an Kukubiltxok egindakoak. Urriaren 11an inauguratu ziran.

Barakaldoko udalak lehenago be izan ditu Erraldoi bikoteak, izan be, 1944an aipamenak ditugu.

Gigantes del grupo Laguntasuna del barrio de San Vicente, fabricados en 1998 por Kukubiltxo e inaugurados el 11 de octubre de ese año.

El ayuntamiento de Barakaldo había mantenido parejas de Gigantes con anterioridad, existiendo referencias desde 1944.

BASAURI

Basauriko udaleko Erraldoiak, Urbietak (Deba) eginak 1992an. Erraldoien lehenengo aipamenak Basaurin 1934tik jatorkuz, eta Laudioko udalak emonak dira.

1947an erosi zituan lehenago Erraldoiak.

Gigantes del ayuntamiento de Basauri fabricados por Urbietak (Deba) en 1992.

Las primeras noticias sobre la presencia de Gigantes en Basauri son del año 1934, habiendo sido cedidos por el ayuntamiento de Llodio. Compra su primera pareja en 1947.



BASURTO (Beti Jai Alai)



Basurtoko konpartsaren Erraldoiak, Jose Arrueren litografia ezagun batean oinarrituta daude. Litografia honetan Erraldoiak Gargantuarekin batera agertzen dira. Konpartsa honen pertsonaiak, Bilboko konpartsan baztertuen zeudenak dira.

2001ean Beti Jai Alai Dantzari Taldeak bereak egin zituen pertsonai hauek: Turkiarra, Mairua eta Beltz Amerikarrak. Kukubiltxok egin zituen. Arropa Nati Ortiz de Zaratek.

Los personajes de la comparsa de Basurto están inspirados en una conocida litografía de José Arrue, donde aparecen los Gigantes de Bilbao junto a Gargantua.

Los cuatro personajes de esta comparsa son los grandes olvidados en la de Bilbao y así los toma como suyos la comparsa de Basurto en 2001 de la mano de Beti Jai Alai Dantzari Taldea.

Estos Gigantes representan a El Turco y La Mora y los Americanos Negros.

La fabricación es de Kukubiltxo y la ropa de Nati Ortiz de Zarate.

BERMEO

1899an jai egitarau batek Erraldoiak eta buruhaundiak iragaten ditu iraileko jaietan.

Errege-erregin katolikoek bikotea larogeiko hamarkadaren hasieran desagertu zuen jai egitarauatik. Bikote hau, 1993ra arte izan zuen udal biltegian eta azkenean desagertu egin ziran.

2002an arrantzale bikotea egin zuen. 2004an Baserritar bikotea fabrikatu zuen. Bikote biak Kukubiltxok eginak dira eta hauen arropa Nati Ortiz de Zarateren lana da.

Udal Erraldoiak dira. 2005ean Bermeoko konpartsa sortzen da.



Un programa de fiestas de 1899 anuncia a los Gigantes y cabezudos en fiestas de septiembre. La pareja de Reyes Católicos, antecesora de la actual, desapareció de los programas de fiestas al principio de los años ochenta. Esta pareja permaneció hasta 1993 en almacenes municipales, desapareciendo finalmente.

En 2002 se fabrica la primera pareja de Gigantes. Representan a los Arrantzales. La segunda se fabrica en 2004 representando a los Baserritarras. Ambas son fabricadas por Kukubiltxo y la ropa por Nati Ortiz de Zarate.

Son Gigantes municipales y en el año 2005 se crea la comparsa propia de Bermeo.



BILBAO (Mairuek)

Bilboko Mairuek konpartsaren Erraldoiak; Kukubiltxok egin zituan 1993an.

Larrabetzun egin eban aurkezpena urte horretako abuztuaren 16an.

Zadikoak eta buruhaundiak 1994 eta 1996 bitartean egin ziran.

Gigantes de la comparsa Mairuek de Bilbao, fabricados en 1993 por Kukubiltxo.

Hacen su presentación en Larrabetzu el día 16 de agosto de dicho año.

Los zaldikos y cabezudos se construyeron entre 1994 y 1996.

DEUSTO (Ondalan Mamutxak)

Euskal mitologiak inspiratu zuen Ondalan Erraldioen Konpartsa 2003an Kukubiltxorekin batera kaleratu zuen ikuskizunean. Irudiak Aker beltz eta Anbotoko Mari dira, eta normalean Sorginek eta Ortziek laguntzen dituzte.

La Mitología Vasca inspiró en 2003 la creación de estos Gigantes de Ondalan para un espectáculo de calle que realizaron con Kukubiltxo.

Las figuras representan a Aker Beltz y Anbotoko Mari, normalmente acompañadas por Sorgiñak y Ortzis a modo de cabezudos.



DEUSTO (Ondalan)

Deustuko Ondalan konpartsako Erraldoiak, Kukubiltxok eginda 1996an. Urte horretarako martxoaren 23an inauguratu ziran Deustuan. Kiliki eta zaldikoak 1997an egin ziran.

Hainbat herritan egiten dabe dantzan.

Gigantes de la comparsa Ondalan de Deusto, fabricados por Kukubiltxo en 1996.

Inaugurados el 23 de Marzo de ese mismo año en Deusto. Los Kilikis y Zaldikos se construyeron en 1997.

Realizan sus bailes en diversos pueblos.



DEUSTO (Ondalan Txiki)

1999an Konpartsa Txikia abian jartzen da. Nafarroako konpartsa txikietanoinarrituta Bizkaian eratzen den lehenengoa da.

Pertsonaiak Euskal Herriko lan tradizionaletan oinarrituta daude: Ikazkina, Esne Saltzailea, Pelotaria eta Laiaria. Erraldoien ezaugarriak gazteen gaitasunen arabera dira.

En 1999 se pone en marcha la Konpartsa Txiki de Ondalan, tomando como referencia experiencias existentes en Navarra, siendo la primera comparsa Txiki de Bizkaia.

Al elegir los personajes se optó por reflejar algunos de los oficios tradicionales de los ámbitos rurales de Euskal Herria, cuidando que las características y el peso fueran adecuadas a las posibilidades de los chavales y chavalas. Los personajes son Ikazkina, Esne Saltzailea, Pelotari y Laiari.

DURANGO

Gaur egun ez dago Erraldoirik. Durangoko Erraldoien azken belaunaldia Pedro Goirienak egin eban larogeiko hamarkadan.

Lehenago Gorpuzti egunean panpina bat erabiltzen zan palu baten gainean "Tarasca" edo "Dominguillo" eban izena.

1943an lehenengo Erraldoiak atondu, jantzi eta dantzan egin eben.

Ondarruko udaletik ekarri zituen. Ondoren 1949an errege-erregin bikotea eskuratu ziran Bartzelonako El Ingenio etxean.

Actualmente no dispone de Gigantes. La última generación de Gigantes de Durango fue fabricada por Pedro Goiriena en la década de los ochenta.

Antiguamente paseaban en fiestas del Corpus un muñeco en la punta de un palo, llamado Tarasca o Dominguillo.

En 1943 se adecentan, visten y bailan los primeros Gigantes procedentes del ayuntamiento de Ondarroa.

Posteriormente, en 1949, se adquieren en la Casa el Ingenio de Barcelona una pareja de reyes.



ERANDIO (Gau Txoriak)



Erandioko Gau Txoriak konpartsaren Erraldoiak, konpart-sak berak eginda. La Ria eta Zumalakarregi, beste lau buru-haundirekin batera, 1985ean egin ziran.

1993an Martiartu jaun-andreak, Peru eta Mari, eta bi zal-diko gehitu ziran.

Los Gigantes de la comparsa Gautxoriak de Erandio han sido fabricados por la propia comparsa. La Ría y Zumalakarregi, fabricados junto a cuatro cabezudos en 1985.

Posteriormente en 1992 se incorporaron los señores de Martiartu, Peru y Mari, y dos zaldikos.

GERNIKA

Gernikako udaleko Erraldoiak, Pedro Goirienak eginda eta 1985ko jaie-tan inauguratuak.

Miguel Unamunok egindako aipamen bati esker, badakigu 1886an Erraldoiak zirala uri honetan.

1915 inguruan hiru bikote eta Gargantua bat erosi ziran.

Pareja de Gigantes del ayuntamiento de Gernika inaugurados en fiestas de 1985.

Miguel de Unamuno cita la presencia de Gigantes en esta villa en 1886. Se compraron tres parejas de Gigantes y un Gargantua hacia 1915.



GETXO



Larogeiko hamarkadan Aragonesa de Fiestas enpresak lau Erraldoi egin zituan. Baserritar, Baserritar andrea, Arrantzalea eta Sardina Saltzailea.

Gigantes del ayuntamiento de Getxo, en los años ochenta fueron fabricados por Aragonesa de Fiestas. Habiendo sido res-taurados en 2003. Aldeano, Aldeana, Arrantzale y Sardinera, son bailados actualmente por el grupo de danzas Agurra.

ONDARROA



Azken Erraldoiak Txomin Agirre Elkarteak eskuratu zituan, eta oraindik be gordeten ditu. Udalak ez dauka Erraldoirik gaur egun.

1929an Lekeitioko udalari alokatutako Erraldoiek egin eben dantzan lehenengoz eta buruhandiak erosi ziran.

1943an udalak Durangori emon eutsazan Erraldoiak. Urteak geroago (1951-1961) errege-erregin bikoteak hartu eban parte jaietan.

Los últimos bailados fueron adquiridos por la asociación Txomin Agirre, que aún los conserva. El ayuntamiento no dispone actualmente de Gigantes.

En 1929 se bailan Gigantes en Ondarroa por primera vez alquilados al ayuntamiento de Lekeitio y se compran cabezudos. En 1943, el ayuntamiento transfiere unos Gigantes a Durango. Años más tarde (1951-1961) una pareja de Gigantes reyes participa en las fiestas.

GORLIZ

Erraldoiei buruz Gorlizen dogun lehen aipamena 1979koa da. Buruhaundien figurak erabiliz Erraldoiak egin ziran armazoi edo egitura baten gainean ipiniz.

1996an lehiaketa bat egin zan Erraldoi barriak egiteko, baina saria emon barik geratu zan.

La primera referencia encontrada sobre Gigantes en Gorliz data de 1979.

Existe una construcción de Gigantes a partir de figuras de cabezudos sobre armazón. En 1996 se realiza un concurso para la creación de nuevos Gigantes, quedando desierto el premio.



LEKEITIO

1915etik ditugu Erraldoiak uri honetan, orduantxe eustezan-eta Zumaiaiko udalari. Gaur egun be erabiltzen dira, nahiz eta beste bikote barri bat izan 1987an Aragonesa de Fiestas enpresak eginda.

Desde 1915 existen estos Gigantes en la villa, fecha en que se compraron al ayuntamiento de Zumaia. Actualmente en activo, si bien disponen de una pareja nueva fabricada por la empresa Aragonesa de Fiestas en 1987.

MARKINA

Markinako udaleko Erraldoi bikotea, Aragonesa de Fiestas enpresak hirurogei ta hamarreko hamarkadan egindakoak.

1928an udalaren jabetzeko lehen Erraldoiak atera zituen, buruak eta eskuak Bartzelonako Casa J. Millat-ek egin zituan, eta egitura eta jantziak urian bertan egin ziran.

Pareja de Gigantes del ayuntamiento de Markina, fabricada por Aragonesa de Fiestas en los años setenta.

En 1928 se pasean los primeros Gigantes propios, las cabezas y las manos fueron fabricadas en Casa J. Millat de Barcelona y el vestuario se confeccionó en la propia villa.



MUNDAKA

Bi Erraldoi izan ditu, herrian bertan eginak izan zirela suposatzen dugu.

Ha tenido dos Gigantes, suponemos que fabricados de forma artesanal.

PORTUGALETE

Lehenengo Erraldoi bikote bat 1935an erosi zen. 1940an bigarrena erosi zuten, euskal janzkerekin ornitua.

Gaur egun Portugaleteko udalaren baserritar bikote bat dago, Pedro Goirienak eginda.

Una primera pareja de Gigantes fue adquirida en 1935. En 1940 se compró otra, que se vistió con trajes del País.

Subsiste actualmente una pareja de Gigantes ataviados de aldeanos, propiedad del ayuntamiento de Portugalete, fabricados por Pedro Goiriena.



SANTURTZI



Santurtziko Erraldoien lehenengo aipamena berrogeigarren hamarkadakoa da.

Ostean beste bikote bat izan zen, Pedro Goirienak 1985an eginda, Kukubiltxok 1996an konpondu zuena.

2001eko apirilean, Mendi Alde Dantza Taldearen eskutik eta Kukubiltxok eginda, Erraldoien Udal Konpartsa sortzen da, honako pertsonaiekin: Arrantzalea, Sardinera, Mehatzaria eta Mineral Garbitzailea.

La primera referencia conocida de Gigantes en Santurtzi data de principios de los años cuarenta.

Existió posteriormente otra pareja, fabricada por Pedro Goiriena en 1985 y restaurada por Kukubiltxo en 1996, que aún se conserva y puntualmente se utiliza.

En Abril de 2001, de la mano de Mendi Alde Dantza taldea y fabricados por Kukubiltxo se crea la nueva comparsa municipal de Gigantes cuyos personajes son : Arrantzalea, Sardinera, Mehatzaria y Mineral Garbitzailea.

SANTURTZI (Txiki)

2005eko apirilaren San Jorge jaietan Santurtzin egin zen Erraldoien bilkura aitzakitzat hartuz, Konpartsa Txikiaren aurkezpena egin zen. Konpartsa berri honen pertsonaiak La Bella Charo, La Sotera, Currito eta Don Elias dira.

En abril de 2005, coincidiendo con la concentración de Gigantes que se celebró en Santurtzi durante las fiestas de San Jorge, aparece la Comparsa Txiki de Santurtzi. Sus personajes son: La Bella Txaro, La Sotera, Currito y Don Elias.



SESTAO



Sestaoko udalaren Erraldoi bikotea. Aragonesa de Fiestas enpresak eginda 1995ean. Honen aurreko bikotea 1975ekoa dugu.

Buruhaundien lehengo aipamen 1935ekoa da, eta Erraldoiena 1942koa.

Pareja de Gigantes del ayuntamiento de Sestao. Fabricados por Aragonesa de Fiestas en 1995.

La primera referencia que se tiene de la existencia de cabezudos data del año 1935, y de Gigantes del año 1942.

UGAO

Lehenengo aipamena 1940koa da, 1983an hondatu zirelarik, uholdeak izan zirela eta. Udalaren oraingo Erraldoiak Pedro Goirienak egin zituen 1984an eta ondoren Kukubiltxok konpondu zituen Nati Ortiz de Zarateren jantziekin.

Buruhandiak "El Arca de Noé" izeneko etxearenak dira eta jantziak Pepita Leonarden esku daude.

La primera referencia data de 1940, perdiéndose éstos en 1983 con motivo de las inundaciones.

Los actuales Gigantes del ayuntamiento fueron fabricados en 1984 por Pedro Goirieta y restaurados por Kukubiltxo en 2003 con vestuario de Nati Ortiz de Zarate.

Los cabezudos son de la casa El Arca de Noé y de su vestuario se encarga habitualmente Pepita Leonard.



URDUÑA



Lehenengo Erraldoiek errege-erreginak irudikatzen dituzte eta 1955ekoak dira. Hamaika jai alaitasunez jantzi ondoren oraindik ere gordetzen dira Urduñako hirian.

Aragonesa de Fiestaek 1971ean egindako beste bikote bat bazegoen. Azkenengo hau euskal jantzi tradizionalekin jantzia zegoen. 2004ko maiatzaren 2an Bihotza Konpartsaren eskutik berreskuratzen da. Erraldoi hauek Garatek (Irun) egindakoak dira. Hauekin batera erregeen jantziak zaharberritzen da.

Los primeros Gigantes, que representan a reyes, son de 1955, que después de alegrar innumerables fiestas, siguen conservándose en la ciudad de Orduña. Existía una segunda pareja, construida por Aragonesa de Fiestas en 1971, ataviada con trajes típicos del País. Ambas parejas coexistieron durante algunos años.

En 2001 se constituye Bihotza Konpartsa y se restauran, en 2002, los Gigantes Reyes propiedad del ayuntamiento.

El 2 de mayo de 2004 reaparece, de la mano de Bihotza Konpartsa, la pareja de Dantzaris, fabricada por Garate (Irun) y se renueva el vestuario de la vieja pareja de reyes.

BIZKAIKO GAITEROAK

Bizkaiko Gaiteroak Taldea gaitarekin zenbait ideia musikalki garatzeko, tradiziozko mihibikoitzaren garapena eta asaba zaharrek eginiko ekarpenari eusteko asmoarekin sortu zen.

Bere ekintzetatik garrantzitsuenetako bat irakaskuntzarena izan bada, beste hainbat musika taldeekin kolaboratu du: musika bandak, txarangak, saxofoi laukoteak, bibolin laukoteak, eta abar... Horrela, Erraldoi konpartsekin, dantza taldeekin edota Euskal Herriko herri askotako festetan ere parte hartu du. Geure mugetatik kanpo hainbat herrialdeetan izan dira: Katalunya, Alemania, Txekiar Errepublika, Frantzia, Uruguay, Hungaria, Danimarka, Kroazia, Belgika, Ingalaterra, eta A.E.B.

Lan horren isla "Oraingo doinu zaharrak" izeneko diskan 2001ean grabatu zuten, Ondalan Erraldoien Konpartsa laguntzarekin. Halaber, beste diska batzutan kolaborazioak egin dituzte: "Julian Romano: 100 urte" diskan esate baterako.



Bizkaiko Gaiteroak surgió con el fin de enriquecer y aportar ideas nuevas al mundo de la música tradicional y más concretamente en el desarrollo de la doble lengüeta tradicional en Bizkaia intentando mantener vivo el legado de sus antecesores.

Además de una importante labor en el ámbito de la enseñanza, dentro de sus actividades han colaborado con innumerables agrupaciones musicales como bandas, txarangas, cuartetos de saxofones, cuerda.etc... Así mismo han realizado numerosas actuaciones por toda Euskal Herria animando fiestas, acompañando grupos de danzas o como soporte musical de diferentes comparsas de Gigantes. Mas allá de nuestras fronteras han participado también en diferentes festivales en países como: Catalunya, Alemania, Republica Checa, Francia, Uruguay, Hungría, Dinamarca, Croacia, Bélgica, Inglaterra y EE.UU.

Gran parte de su trabajo ha quedado reflejado en el disco "Oraingo doinu zaharrak" (2001) con la colaboración de Ondalan Erraldoien Konpartsa. Además de éste, han colaborado en diferentes grabaciones como "Julian Romano: 100 años".

ERRALDOIEN BILKURA DEUSTUAN

APIRILAK 1 - 11.00ETAN



ANTOLATZAILEAN



Proiektu hau abiatu genueneko hamar urte betetzen zirela ospatu beharra pentsatu genuen, gure ibilbidea zertarako balio izan duen era praktikoan erakusteko garaia zela erabaki genuen.

Urtemuga ospatzeko ekitaldi nagusia Erraldoien bilkura bat izango zela argi genuen, bertan azken urte hauetan Erraldoien berreskurapenaren alde lan egin duten pertsona eta Konpartsa guztiak batuko genituelarik.



Cuando comenzamos a plantearnos la necesidad de celebrar de alguna manera los diez años de la puesta en marcha de este proyecto, considerábamos que era el momento de mostrar de manera práctica en qué se había concretado nuestra trayectoria.

Teníamos claro que el acto central de celebración del aniversario debía ser una concentración de Gigantes que reuniera a todas aquellas comparsas y personas con las que hemos trabajado en estos últimos años por la recuperación de los Gigantes.



HAMARGARRENA OSPATZEN ...



... ETA GEHIAGO



PARTE HARTU DUTE



DEUSTO (ONDALAN)



DEUSTO (ONDALAN TXIKI)



AMURRIO (ALDUNAK)



AREATZA



BERMEO



ARRASATE



BARAKALDO (LAGUNTASUNA)



BASURTO (BETI JAI ALAI)



ERANDIO (GAU TXORIAK)



DEUSTO (ONDALAN MAMUTXAK)



KANBO (SUKILA)



LEGUTIO (LAGUNTZA BAT)



SANTURTZI
(MENDI ALDE TXIKI)



ORDUÑA (BIHOTZA)



SANDUZELAI



SANTURTZI (MENDI ALDE)





Ekitaldi nagusia, erreportai berezian deskribatua, ez zen berez nahikoa beste ekitaldiez lagunduta ez bazen, Konpartsa honetan bere sorreratik markatutako hiru lan ildoetan indar egiten zuten ekitaldiak alegia.

Hau guztia dela eta, zera egin behar genuen:

- Eguneko jai bat,
- Jai imajinagintza bultzatzen zuena,
- Gure kultura tradizionalaren beste elementuak sartuz.

Hau dena urteotan gurekin kolaboratu duen elkarte eta pertsona orori dagokion lekua eta protagonismoa ematen.

El acto principal, descrito en el cuadernillo central, era insuficiente si no iba acompañado de otros actos que incidieran en los tres ejes de trabajo que desde su origen se ha marcado esta comparsa.

Debíamos por tanto :

- Hacer una fiesta de día.
- Potenciando la imaginería festiva
- Introduciendo otros elementos de nuestra cultura tradicional.

Todo ello dando espacio y protagonismo a todas aquellas asociaciones y personas con las que más directamente hemos colaborado en estos años.



10. URTEMUGA

Era honetan, bilkura bat antolatzeaz gain ekitaldiez beteriko programa sortu zen, honakoak alegia: erakusketak, ikaste tailerrak, dantza erakustaldiak, antzerkia, erromeria, ... honela gauzatu zena:

Así, finalmente surgió un programa de actos que incluía además de la concentración: exposiciones, talleres de aprendizaje, exhibiciones de baile, teatro, romería, ... concretado de la siguiente manera:

Martxoak 26tik 31ra Ikastetxeetan erakusketa



INTXIXU IKASTOLA



DEUSTUKO IKASTOLA



SAN INAZIO H.I.

Martxoak 29 Erraldoiak eramateko tailerra Deustuko Ikastolan.

Martxoak 30 Erraldoiak eramateko tailerra San Inazioko Herri Ikastetxean.

Martxoak 31 Erraldoiak eramateko tailerra Intxixu Ikastolan.



DEUSTUKO IKASTOLA



SAN INAZIO H.I.



INTXIXU IKASTOLAN

Martxoak 25 Lau Erraldoi Nagusiak eta bi txikiak Deustuan.

Martxoak 30 Bi Erraldoi nagusiekin Intxixu Ikastolako Kultur Astean.

Maiatzak 4 Erraldoiekin San Inazio Ikastetxek Euskal Astean.



DEUSTUA



INTXIXU IKASTOLA



SAN INAZIO H.I.

Para la Concentración de Gigantes del 1 de abril, contamos con la colaboración de numerosas asociaciones, de Gigantes, musicales, y otras que se encargaron de tareas de coordinación y apoyo logístico.



Apirilaren 1eko Erraldoien Bilkurarako elkarte askoren laguntza izan genuen, Erraldietakoena, musika elkarteena, baita koordinazio eta sostengu logistikoaz arduratu zirenena ere.

ERRALDOIEN KONPARTSAK

Amurrio (Aldunak)
Areatza
Arrasate
Barakaldo (Laguntasuna)
Basurto (Beti Jai Alai)
Bermeo
Erandio (Gau Txoriak)
Kanbo (Sukila Elkartea)
Legutiano (Laguntza bat)
Orduña (Bihotza)
Sanduzelai
Santurtzi (Mendi Alde)

GAITARI ETA MUSIKOAK

Bizkaiko Gaiteroak
Deustuko Gaiteroak
Arrasateko Gaiteroak
Barakaldoko Laguntasuna
Beti Jai Alai Dantzari
Taldea
Urdaibaiko Gaiteroak
Foruko Gaiteroak
Sanduzelaiko Gaiteroak
Laguntza bat Txistulari Taldea
Bihotz Alai Folklore D.T.

BESTE ELKARTEAK

Peña Deusto-Athletic
Goiko Alde Kultur Elkartea
Kabia Kultur Elkargunea
Intxixu Ikastola
Bihotz Alai Dantza Taldea
Mikeldi Dantza Taldea
Goi Herri Dantza Talde

Ondorengoan laguntza ere jaso genuen:

- Pertsona eta merkatari askorena, era batean edo bestean ekitaldi hau sostengatu zutenak.
- BBKrena, publizitate kostu guztiak bere gain hartu zituenak.
- Bilboko Udala eta Bizkaiko Foru Aldundiarena, ekitaldiaren %25aren laguntza suposatu duten dirulaguntzak eman dituztenak.

Tuvimos también la colaboración de :

- Numerosas personas y comercios, que de una u otra manera apoyaron este acto.
- BBK, que se hizo cargo de todos los costes de publicidad.
- De Ayuntamiento de Bilbao y Diputación de Bizkaia, que han otorgado subvenciones que, conjuntamente, han cubierto un 25 % del presupuesto de este acto.

10. URTEMUGA

Honek guztiak inoiz Bizkaian burutu den Erraldoien Bilkurarik handiena egin ahal izana suposatu du, 56 Erraldoirekin, aldi berean Bizkaiko Erraldoien parte hartze handienarekin ere, 40 Erraldoirekin.

Bazkalostean, 400 lagun elkartu ginelarik, parte hartu zuten elkarte guztiei oroitgarrizko plaka eman genien



Todo ello ha permitido realizar la mayor concentración de Gigantes de la que haya constancia en Bizkaia (56 Gigantes), y con la mayor participación de Gigantes vizcainos (40).

Tras la comida, con más de 400 comensales, se entregó una placa conmemorativa a las entidades participantes.



Kukubiltxo Antzerki Taldeak, nola ez, parte hartu zuen bere eran, Kukubel antzezlanaz plazaratuz. Kukubiltxo momentu honetan Bizkaian dagoen Erraldoigile nagusia da.

Egunari amaiera emateko erromeria ospatu genuen, ahaztezina izango den egunari azken ikutua eman ziona.

No podía faltar a la cita el grupo de Teatro Kukubiltxo que representó su obra Kukubel. Kukubiltxo es actualmente el principal fabricante de Gigantes de Bizkaia.

Finalizamos la jornada con una Romería popular que sirvió de broche a una jornada inolvidable.



Urte honetan zehar, gure 10. urtemugak markatuta izan dena gehien bat, Konpartsaren sorreratik gure aktibitatea seinlatu duten hiru ardatzak oinarri hartuta lan egiten jarraitu dugu.

- Kultura tradizionalaren garapena.
- Eguneko jaia bultzatzea.
- Jai imajinagintza berreskuratzea.

Betidanik pentsatu izan dugu Erraldoiak ez direla ikuskizun soil bat moda iragankorren menpe bizi direnak, inguru puntual batean onarpen handiago edo txikiagoa dutenak, baizik eta inguru kultural bati lotuta doazela, bertan herrialde zehatz baten historia eta kultura transmititzeko ikono izatearen papera dagozkielarik.

Era honetan, Erraldoiek historia bat deskribatzen dute, euren janzkerak usadio bat, eta euren musika eta dantzak jaia ulertzeko era berezia.

A lo largo de este año, básicamente marcado por los actos de celebración del 10º Aniversario, hemos seguido trabajando en base a los tres ejes que, desde su nacimiento, han centrado la actividad de la comparsa.

- Desarrollo de la cultura tradicional.
- Promoción de la fiesta de día.
- Revitalización de la imaginería festiva.

Siempre hemos entendido que los Gigantes no son un mero espectáculo que tenga que ver con modas pasajeras, con mayor o menor aceptación puntual en un contexto concreto, sino que forma parte inseparable de un contexto cultural en el que les corresponde un papel de transmisión iconográfica de la cultura e historia de un territorio concreto.

Así, los personajes definen una historia, sus vestuarios unos modos y sus músicas y bailes una forma concreta de entender la fiesta.





KULTURA TRADIZIONALAREN GARAPENA

Erraldoiak, beraz, kultura tradizionalaren zatia izanik, euren izatea arrazoitzen duen inguru zehatz batean kokatuta daude.

Hau guztia dela eta, aurten ere zenbait ekitaldi burutu eta inguru hori garatzeko baliogarriak diren ekimen ezberdinetan parte hartu dugu.

- 10. urtemugaren ekitaldien barnean erromeri bat antolatu dugu San Inazio, eta antzezlan bat (Kukubel) Kukubiltxoren laguntzarekin. Intxixu Ikastola eta San Inazio Herri Ikastetxeen Euskal Asteetan parte hartu dugu.

- Deustuko Folklore Plataforman jarraitzen dugu, Bihotz Alai, Gure Herria eta Mikeldi dantza talde eta Bizkaiko Gaiteroak eta Goiko Alde Kultur Elkarteekin batera, San Pedro plazan lau erromeri antolatu ditugarik.



DESARROLLO DE LA CULTURA TRADICIONAL

Los Gigantes, como parte de la cultura tradicional, deben estar integrados en un contexto en el que sea comprensible su razón de ser.

Por ello, este año también hemos desarrollado una serie de actividades paralelas y colaborado en diferentes actos que permitan desarrollar este contexto.



- Dentro de los actos del 10º Aniversario hemos organizado una romería en San Inazio, hemos incluido un acto teatral (Kukubel) con la colaboración de Kukubiltxo, y participado en las Euskal Astea de la Ikastola Intxixu y el C.P. San Inazio.

- Nos mantenemos en la Plataforma de Folklore de Deusto, conjuntamente con los grupos de danzas Bihotz Alai, Gure Herria y Mikeldi y las asociaciones Bizkaiko Gaiteroak y Goiko Alde, organizando cuatro romerías al año en San Pedro.

- Aurten, aurreko urteetan bezela, Arangoitiko Euskal Jaia, San Inazioko Pala Txapelketa, Portugaleteko La Guiaren ospakizuna eta Bilboko 12 Ordu Euskaraz Egunarekin kolaboratu dugu.

- Hauetaz gain, Basauriko Dantza Agerketa eta Deustuko Artizautza Azokarekin kolaboratu dugu.

- Bilboko Betizu Jaia eta Olentzeroren etorreran ere parte hartu dugu.

- A lo largo de este año hemos colaborado, como en años anteriores, con la Euskal jaia de Arangoiti, con el Campeonato de Pala de San Inazio y con los actos de La Guía en Portugalete y los actos de 12 ordu Euskaraz en Bilbao.

- Hemos colaborado además con el Dantza Agerketa de Basauri y con la Feria de Artesanía de Deusto.

- Hemos participado en la fiesta de Betizu y el Olentzaro en Bilbao.

PROMOCIÓN DE LA FIESTA DE DÍA

Los Gigantes y Cabezudos son un espectáculo diurno, itinerante y promotor de un modelo de participación activa y de relación intergeneracional.

Con estas premisas hemos realizado en 2006, 68 actuaciones :

- 43 con la Konpartsa Nagusia:
 - 13 en Deusto.
 - 26 en 15 municipios de Bizkaia. (*)
 - 4 en otros puntos de Euskal Herria como: Amurrio y Langrätz (Araba), Oñate (Gipuzkoa) y Kanbo (Lapurdi).
- 16 con la Konpartsa Txiki:
 - 11 en Deusto.
 - 4 en Bizkaia: Bilbao (2), Portugalete y Usansolo
 - 1 actuación en Amurrio.



EGUNEKO JAIA BULTZATZEA

Erraldoi eta Buruhandiak eguneko ikus-kizunak dira, mugikorrak eta parte hartze aktiboaren ereduaren bultzatzaileak, belau-naldien arteko zubiak eraikiz.

- 9 con Mamutxak:
 - 6 en Deusto.
 - 3 en Bizkaia: Basauri, Gernika y Portugalete.

Hau kontutan hartuta, 2006an 68 ekitaldi burutu ditugu:

- 43 Konpartsa Nagusiarekin.
 - 13 Deustuan.
 - 26 Bizkaiko 15 udalerritan (*).
 - 4 Euskal Herriko beste lekutan: Amurrio eta Langraitz (Araba), Oñati (Gipuzkoa) eta Kanbo (Lapurdi).
- 16 Konpartsa Txikiarekin:
 - 11 Deustuan.
 - 4 Bizkaian: Bilbao (2), Portugalete eta Usansolo.
 - 1 Amurrion.
- 9 Mamutxak konpartsarekin:
 - 6 Deustuan.
 - 3 Bizkaian: Basauri, Gernika eta Portugaleten.

- Honako Erraldoien bilkurak antolatu ditugu: gure 10. urteurrenekoa, Deustua, Bilbao eta Amorebietako jaietakoak, eta zati batean Miranda de Ebrokoa. Amurrio, Kanbo eta Oñatikoetan ere parte hartu dugu.

- Honako Konpartsei lagundu diegu euren Erraldoiak dantzatzeko: Areatza, Gernika, Getxo, Santurtzi eta Irintzi (Irun). Honakoen laguntza jaso dugu: Amurrio, Areatza, Arrasate eta Bermeo.

- Sarrikoaldeko San Miguel Jaiak eta Luzarrako San Silbestre Jaiak bultzatzen jarraitzen dugu.



- Hemos organizado las concentraciones de Gigantes de nuestro 10º Aniversario, fiestas de Deusto, Bilbao y Amorebieta, y parcialmente de la de Miranda de Ebro. Hemos tomado parte de las de Amurrio, Kanbo y Oñate.

- Hemos apoyado, ayudando a bailar sus Gigantes a las comparsas de Areatza, Gernika, Getxo, Santurtzi e Irintzi (Irun). Y hemos recibido el apoyo de las de Amurrio, Areatza, Arrasate y Bermeo.

- Seguimos promoviendo la recuperación de las fiestas de San Miguel en Sarrikoalde y de San Silvestre en Luzarra.



(*) Basauri, Bilbao (8), Durango (2), Erandio, Ermua, Galdakao (2), Gorliz (2), Lanestosa, Laukiz, Leioa, Lemoa, Loiu, Mungia (2), Plentzia, Trapagaran.

JAI IMAJINAGINTZAREN BERRESKURAPENA

Erraldoiek, jai imajinagintza tradizionalaren zati bezela, euren espazioa berreskuratu behar dute jaietan, baina aldi berean bizitza sozialaren beste arlo eta bere inguru kulturean eremu berriak ireki behar dituzte.

Zentzu honetan, euren irudien hedapena eta Konpartsa berriak bultzatzea gure lanaren beste ardatza da, eta honen harira:



- Urte hasieran Bermeoko ikastaroekin jarraitu genuen, Bermeoko Erraldoien Konpartsaren sorrera ekarri zuena, maiatzaren 18an aurkeztu zelarik.

- 10. urtemuga dela eta, erakusketak eta tailerrak burutu genituen Deustuko Antzinako Elizatearen eremuko zenbait ikastetxetan.

- Gure argazkien artxiboa 1500 argazkiekin handitu da aurten, laguntzaile askori esker besteak beste.

- Gure webgunea mantentzen dugu: www.ondalan.com. Bertan gurekin harremanetan jarri ahal zarete (edo ondalan@hotmail.com helbidean).

- Azarotik gure entsaioak berreskuratzen ditugu, denoi zabalik daudenak ikasi eta/edo parte hartzeko.



REVITALIZACIÓN DE LA IMAGINERÍA FESTIVA.

Los Gigantes, como parte de la imagerie festiva tradicional, deben recuperar su espacio en la fiesta, pero simultáneamente deben ir abriendo espacios en otras áreas de la vida social y en su entorno cultural.

En ese sentido, la difusión de su imagen, y la promoción de nuevas comparsas y el desarrollo de las actuales es otro de nuestros ejes de trabajo, por lo que:

- A primeros de año continuamos con los cursillos en Bermeo, lo que dio pie a la creación de la actual Comparsa de Gigantes en Bermeo, cuya presentación se realizó el 18 de mayo.

- Con motivo del 10º Aniversario realizamos exposiciones y talleres de baile de Gigantes en varios centros escolares del área de la Antigua Anteiglesia de Deusto.

- Nuestro archivo fotográfico se ha visto incrementado en mas de 1500 fotografías este año, en parte gracias a las aportaciones de numerosos colaboradores.

- Mantenemos nuestra página web: www.ondalan.com desde donde podéis poneros en contacto con nosotr@s, así como en ondalan@hotmail.com.

- Desde noviembre recuperamos nuestra línea de ensayos habitual, que está abierta a todo el que quiera aprender y/o participar.

ORTUELLA

Sortze data: 2006ko maiatza.

Egilea: Mari Ganuza (Iruñea)
Jesus Villanuevaren zirriborroetatik aterata

Pertsonaiak: Barrenador
Txirlera

Ortuellako udalaren Erraldoiak, "Polunpak" konpartsak dantzatzeko dituzte.

Meatzaldeko herri pertsonaiak antzezten dituzte, batek lau puntatako lokarridun zapi tradizionala eramaten du.

Gigantes propiedad del ayuntamiento de Ortuella, que son bailados por la Comparsa "Polunpak".

Representan personajes populares de la zona minera, tocados con el clásico pañuelo a cuatro nudos.



TRAPAGARAN



Lehengo Erraldoien buruetaz baliatuz, Guillermok (Zugaztietakoa) eginak, meatzari eta kapataz ingelesa errepresentatzen zutenak, Trapagarango udalak, 2006ko uztailan, pertsonai berri hauek egin ditu erakusketetan ipintzeko bakarrik.

Olaso Jauregian daude ikusgai.

Partiendo de las cabezas de los antiguos Gigantes, fabricados en su día por Guillermo (La Arboleda) y que representaban a un trabajador de las minas y al capataz inglés, el ayuntamiento de Trapagaran ha reconstruido en julio de 2006 estos nuevos personajes que se han hecho exclusivamente para exposición.

Se pueden visitar en el Palacio Olaso.







www.ondalan.com